



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Cybertonia, metabertsoaren hazia

**S**ESB, 1960ko urtarrilaren 1a. Kieveko Zibernetika Institutuko urte berriko festan, ikerlariei, txantxetan, herrialde birtual bat asmatzea bururatu zitzairen. Cybertonia izena ipiniko zioten eta, beti ere, umore ukitua galdu gabe, 1960ko hamarkadan ideia hura garatzen jarraituko zuten.

Victor Glushkov (1923-1982) matematikari errusiarra institutuko zuzendari izendatu berri zuten. Glushkov zibernetikaren aitzindaritzat jotzen da eta ekarpen garrantzitsuak egin zituen automatzen teoriarik, algoritmoen aljebran, inteligentzia artifizialean edota ekonomiarik kudeaketa automatizatuan.

Baina 1960ko hamarkadan bere lantaldearen egiteko nagusia aurreko hamarkadan Anatoly Kitov zientzialari militarrik proposatutakoa garatzea izango zen. Kitoven asmoa, eta handik aurrera Glushkvena, ordenagailu militarrik konektatzen zituen sarea zabaltzea eta gizarte zibilaren eskura jartzea zen, edo beste modu batera esanda, Internet garatzea. Badakigu lehia hura AEBek irabazi zutela, baina sobietarren arazoa ez zen teknologikoa. Kieveko zientzialariak gai ziren bide horretan aurrera egiteko, baina oztopoa Moskun zegoen; sobietar agintariei arriskutsuegia iruditzen zitzairen sarea esponenzialki haztea eta herritarren zerbitzura jartzea.

Zientzialari haientzat frustrazioa arintzeko ihesbidea izan zen Cybertonia. He-



Victor Glushkov, 1960ko hamarkadan Cybertonia herrialde birtuala sortu zuen ikerlari taldeko burua.

rrialde birtuala handik bi urtera, 1962an, fundatu zuten ofizialki eta pixkanaka elementuak eransten joan ziren. Gobernuak zuten, Cybertoniako Robot Kontseilua, baita konstituzio bat ere. Egunkaria, moneta propioa, pasaporteak... sortu zituzten, eta maskota ere bai: saxofoia jotzen zuen robota -cybertoniarrak jazz musika zaleak baitziren-. Ezkontza ziurtagiriren bat ere sinatu zuten.

Zientzia jardunaldiak eta sinposioak antolatu zituzten eta, tarteka, festak ere bai. Izan ere, Cybertoniako populazioa gaztea zen; Zibernetika Institutuko ikerlarien batezbesteko adina 25 urtekoa

zen mundu birtuala sortzen hasi zirenean.

Baina 1970erako gerora Internet izango zena garatzeko proiektua bertan behera utzi behar izan zuten eta, horrekin batera, Cybertonia ere itzali zen.

Kieveko Zibernetika Institutuko ki-deek -edo cybertoniarrak- ez zuten pentsatutako guztia gauzatzeko tresnarik izan. Hamarkada batzuk beharko ziren teknologia hori garatzeko. Baina gaur egun metabertsoko plataformek erabiltzen dituzten ideia askoren oinarria jarri zuten. Bestela esanda, lehen metabertsua pentsatu zuten. ●



## Izenik gabeko erromatar hiria

2018an Artiedako (Zaragoza) udalak El Forau de la Tuta aztarnategiko arrastoak ikertzeko laguntza eskatu zion Zaragozako Unibertsitateko Arkeologia Sailari. Orain, arkeologoek txosten batean eman dute han aurkitutakoaren berri: I. eta II. mendeetako erromatar hiria zegoen bertan, Pompaelo (Iruñea) eta Iaca (Jaka) lotzen zituen galtzadan. Hainbat

azpiegitura eta eraikin monumental identifikatu dituzte: kaleak, estolderia, ur hornikuntza sistema, termak, tenplu bat... Gerora, IX. mendetik aurrera, herririk Artede, Arteda edo Artieda euskal izenez agertuko zen dokumentuetan, baina adituek oraindik ez dute aurkitu Pirinioen hegoaldeko erromatar hiri horren izenik. ●